

noawa



MARTXOAREN 19AN ASTEARTEA, GAUEKO 23:00AK ALDERA HELDUKO DA KORRIKA GURE ARTERA

Zubietatik iritsiko da eta Usurbildik Aginagarako bidea hartuko du / 14-17

ARGAZKIA: AEK

Sagardotegiek asteburuan abiarazi zuten txotx garai berria / 03

Aitzaga Kultur Elkarteak 30 urte beteko ditu aurten / 10

Energia aholkularitza zerbitzua martxan da berriro ere / 11

Igandean Sutegin, 'Soneto bat irakurtzeko 20 modu' ikuskizun poetikoa / 22



Alsazia eta Oihan beltza

IRTEERA 2024ko maiatza

Noaoak gidatutako talde bidaiak.
Lasarte-Oriatik irtenda.

943 37 36 13 • info@noaa.eu • Hipodromo Etorbidea, 10 • Lasarte-Oria



FINKA ADMINISTRATZAILEA

AHOLKULARITZA ZERBITZUA

INMOBILIARIA

ASEGURUAK

943 573 693

Eusko Gudari 35, ORIO

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



ERRIGORAKO PRODUKTUEN
Bi saski
zozketatuko ditugu
NOAUA!ko bazkideen artean



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eu

Txotx bolada berria abian

Asteburuan abiarazi dute sagardotegiek, sagardo uzta berria dastatzea ahalbidetuko digun denboraldia.

Sagardo berria dastatzeko garaia heldu da. Datozen asteotan uzta berria probatzeko aukera izango dugu txotxetik sagardotegietan, guneok ireki ahala. Asteburuan hasi dituzte joan-etorriak, besteak beste, ondoko argazkian duzuen Saizar sagardotegian, ospetsuen eta herrikideen artean. Aurreko edizioen antzera, bertako, nahiz urrunagoko

aurpegi ezagunak batu zituzten Saizarren; politika, kultura, komunikazio nahiz kirol munduko pertsona ospetsuak. Haietako bik izan zuten, sagardo berria txotxetik zerbitzatu, edalontzia goratu eta "hau da Usurbilgo Saizar sagardo berria" adierazteko ohorea; Iker Casillas eta Luis Miguel Arconada futbolatzeain ohiek. Sebastian Lizasoren



Saizar sagardotegiak urtarrilaren 12an egin zuen irekiera ekitaldi jendetsua.

bertsoek, Korrontzi taldeak eta dantzarien aureskuak egin zieten harrera bi kirolari hauei eta haien atzetik zetorren jendetsuari, Julian Iantzik aurkezturiko ekitaldian. Korrontzik, Gatibuk eta Mikel Erentxunek girotu zuten afalostea.

bertsoek, Korrontzi taldeak eta dantzarien aureskuak egin zieten harrera bi kirolari hauei eta haien atzetik zetorren jendetsuari, Julian Iantzik aurkezturiko ekitaldian. Korrontzik, Gatibuk eta Mikel Erentxunek girotu zuten afalostea.

Urtarrilaren 23an, bilera kultur eragileekin

Usurbilgo Udalak eta Kultur-guneak bilera deitu dute urtarrilaren 23an 18:30ean Po-txoenean kultur eragileekin. Hitzordu horretan, besteak beste, honako gaiak hartuko dituzte ahotan: kultura eta sorkuntzako dirulaguntza deialdi berriak, egutegi dinamikoa eta Elkargunea.

Inauteri Festan mozorrotzeko gaia hautatu behar da

Urtarrilaren 17ra arteko epea duzue NOAUA! K.E. otsailaren 10erako antolatzen ari den Inauteri Festarako mozorrotzeko gaia proposatzeko. Bil-dutako ekarpenen artean hautatutakoa argitu bezain laster jakinaraziko dugu. Propo-samenak egiteko: 688 807 336 / elkarte@noaua.eus

San Sebastian Eguneko danborradak, urtarrilaren 19an

San Sebastian Egunari aurre hartuz, danbor hotsen oihartzuna gure artera helduko da jai egun horren bezperan; ostiralean, urtarrilaren 19an, ikastetxeetara. Udarregi ikastolatik jakinarazi dutenez, arratsaldeko 16:00etan "danborrada joko dugu Agerialdeko jolastokian LHko ikasleekin batera".

Odol-emaileen eguna urtarrilaren 21ean ospatuko da

Igandean, urtarrilaren 21ean, urteroko hitzordu honen bueltan bazkaritarako bilduko dira Usurbilgo odol-emaileak Antxeta jatetxean. Otordurako izena bideotatik eman ahalko da: 943 363 102 (Agustina) edo 619 125 644 (Mari Jose). Topaketa honetan zehar, hainbat emaile omenduko dituzte.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkartea
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Aiaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbegozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



LUIS ARANALDE

Polemikaren bedeinkazioak

Frantzisko Aita Santuak Gabonetako erregali bat aurrreratu die LGBTI kolektiboetako sexu bereko bikoteen bedeinkazioa onartzean. Vatikanoren aurreko esaldi ezagun hura: "Jainkoak ez du bekaturik bedeinkatzen", erazua izan da. Modu irregularrean (izatezko bikoteak, banandu eta berriz ezkonduak) bizi diren bikoteak ere bedeinkatzea onartu du. Lehengo Federean Dotrinak ez zuen onartzen horrelako bedeinkapenik. Batzuentzat erabaki hau "historikoa" izan da.

Erreakzioak ere agudo asko agertu dira. Munillarentzat, pastoral karitateak bekatarik garen guztiok bedeinkatuak izatea eskatzen du, baina ez gure bekaturik bedeinkatzea; "ez dugu bekaturik bedeinkatuko". Garbien hitz egin duena El Ejido parrokoa izan da: "Nirekin ez dezatela konta bekaturik mortalean daudenak bedeinkatzen. Elizaren Tradizioa arimen salbamenaren bila dabil, eta ez familia hausten eta genero ideologia zabaltzen dabilenarekin. Kontzientzia objektuaren aldeko deiak ere egon dira. "Joan daitezela pikutara!", esan dute apaiz erreakzionario batzuek. Halere, gehiengo handi baten-tzat pauso txiki bat izan da: badirudi emeki-emeki Eliza inklusibo baten bidean gaude. Erabaki honek Eliza katolikoan nabaritzen dugun LGBTI fobiaren aurka borrokatzen lagunduko digu ene ustez.

LGBTI kolektiboarentzat adierazpen hau ez da nahikoa, oraindik ere pertsona homosexualak eta egoera irregularreko bikoteak gutxien dituzte, bedeinkapenak ez baitira sakramentalak. Bedeinkazio horiek bigarren mailakoak dira,



Aita Santuak esan zuen ea zein zen hura pertsona homosexual bat juzgatzeko. Geroztik hamar urte pasa dira pauso txiki hau eman ahal izateko.

ezkutuka bezala emanak. Nolabait esateko, festarik gabeko bedeinkapenak. "Eliza katolikoaren bedeinkapen papurrak bakarrik merezi al ditugu, bada?". Kolektibo honetako arduradun batek "apartheid" neurri bat dela ere esan du.

Bikote egonkorra duen batek honela zioen: "Dezepzioz irakurtzen dut bikote homosexualen bedeinkazioari buruzko oharra. Zer pena dotrina sozial hain ona duen Aita Santu batek gu ez hartzea heterosexualen pareko pertsonatza! Eliza honek dezepzionatu egiten du beste behin".

Badakizue zenbat miresten dudan Aita Santu hau. Leonardo Boff teologo handiak esan

BADAKIZUE ZENBAT MIRESTEN DUDAN AITA SANTU HAU. LEONARDO BOFF TEOLOGOAK ESAN ZUEN "FRANTZISKO HAUTATUA IZATEA MIRARI BAT IZAN ZELA".

zuen "Frantzisko hautatua izatea mirari bat izan zela". Hala eta guztiz ere, gauza bat esango nieke aipaturiko erabaki hauek hartzen dituzten elizgizonei: Itun Berrian dagoen esaldirik iraultzaileena agian honako hau da: "Jainkoa maitasuna da eta maite duen oro Jainkoagan dago eta Jainkoa harengan". Edonork ulertzen duenez, maite duen oro (homoa, heteroa, transa, sinestaduna, sinesgabea, ezkondua, ezkongabea eta abar) Jainkoarengan dago, eta Jainkoa harengan. Beraz, zein haiz hi, esango nioke bedeinkatu nahi ez duen arduradun erlijioso horri: Jainkoaren maitasuna merezi dik eta hirea ez? Gai honetan eta beste guztietan, San Joanen esaldi paregabe horretatik abiatu behar luke elizak gaurko mundu honi mezu itxurazko bat eman nahi badiu.

Aita Santuak esan zuen ea zein zen hura pertsona homosexual bat juzgatzeko. Geroztik hamar urte pasa dira pauso txiki hau eman ahal izateko eta horrek elizaren baitan mugimendu serio eta handi bat eskatu du. Baina oraindik auzardi handiagoa eskatzen zaio gure Elizari.

Udarregi ikastolako DBH4ko ikasleen errifa

DBH4ko ikasleak ikasbidaia-rako dirua biltzen ari dira eta errifa zozketa bat egin dute. Sarituak izan diren zenbakiak hurrengoak dira:

- 1. saria (Bruñoko 5 kg txan-gurrua): 393. zenbakia.
- 2. saria (Txiribogako 2 plater konbinatu): 82.
- 3. saria (Ines ile-apainde-giko produktuak): 707.
- 4. saria (Laurok liburudenda-ko liburu sorta): 506.

Udarregiko idazkaritzatik pasa sari bila

Sariak jasotzeko epea urtar-rilaren 26 amaituko da eta Udarregi Ikastolako idazkaritzatik pasa beharko da har-tzera.

Elkar laguntza talde bat osatzeko deialdia

Elkar laguntza talde bat osatzen ari dira Usurbilen eta interesa duten familia denei parte hartzeko gonbitea luzatu nahi zaie. Sentsibilitate handiko pertsonak (PAS) eta adimen gaitasun handiak (AGH) dituzten umeen gurasoei zuzenduta ekimen hau eta bilera bat iragarri dute datorren asterako.

Urtarrilaren 25ean, bilkura Potxoenean

Urtarrilaren 25ean osteguna, Potxoenean elkartuko dira arratsaldeko 17:30ean.

Ekimen honen antolatzaileek aditzera eman dutenez, bilkurak hilean behin egingo dira. "Lehenengo saioan adostu dezakegu hurrengo saioetako ordutegia zein izango den", ohar bidez jakinarazi dutenez. Talde honi buruzko argibide gehiago topatuko dituzue familiadecebras@gmail.com e-posta helbidean edo @familiadecebras Instagram helbidean.



Argazkiaren erdialdean, Pedro Jauregui Fernandez, Etxebizitzako sailburuordea.

Usurbilgo udalerrria, tentsio handiko bizitegi-eremuan

Etxebizitzaren Euskal Behatokiak egindako diagnostikoak Euskadiko 251 udalerrien artean izendapen hori jaso dezaketan 41 identifikatu ditu. Tartean dira Usurbil eta Buruntzaldeko gainontzeko udalerrriak.

Tentsio handiko eremu izendatu litezkeen eremuak identifikatzeko, Eusko Jaurlaritzak, Etxebizitzaren Euskal Behatokiaren bidez, azterlana egin du. Honako irizpideetako bat bete behar da, derrigorrez:

- Izendapena egin aurreko bost urteetan, erosketa edo alokairu-prezioa Euskadiko KPIren hazkunde metatua baino %3 puntu igo bada gutxienez. Eustaten arabera, % 14koa da igoera.
- Hipotekaren edo alokairuaren kostuaren batez besteko

kargak, aurrekontu pertsonalean edo bizikidetzaren unitatearenean, gehi oinarrizko gastu eta hornidurek (argindarra, gasa, gasolioa edo bestelako hornidura energetikoak, ura, telekomunikazio-zerbitzuak eta komunitateko ekarpenak) batez besteko diru-sarreraren edo familien batez besteko errentaren % 30 gainditzen badute. Irizpide hori betetzen den edo ez aztertzeke, Eustaten eta Alokairu Merkatuaren Estatistikako (AME) emaitza berrienak aztertu dira.

Izendapena Eusko Jaurlaritzak egingo du udalak eskatuta, udalak erabaki hori hartzen badu. Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA) eta dagokion lurralde historikoko aldizkari ofizialean argitaratuko da prozedura hasi dela, eta ondoren sailburuaren agindu bidez emango da ebazpena, eta Etxebizitza Ministerioari jakinaraziko zaio.

Tentsio handiko eremu izendatzearen ondorioak

Pedro Jauregui Etxebizitzako sailburuordeak eta Mario Yoldi Etxebizitzako Plangintzaren

IZENDAPENA EUSKO JAURLARITZAK EGINGO DU UDALAK ESKATUTA, UDALAK ERABAKI HORI HARTZEN BADU

eta Prozesu Eragileen zuzendariak abenduan eskaini zituzten xehetasunak, prentsa agerraldian: "Arauk ez du inposatzen, gaitu egiten du, eta, beraz, tentsio handiko eremu izendatzea ez da obligazio bat, baizik eta erabili nahi duten udalerriei ematen zaien aukera bat, salbuespenezko eta denboran mugatutako mekanismo bat".

Eremu bat tentsio handiko eremu izendatzeak honakoa dakar, EJR-en oinarriaren arabera:

- Kontratua amaitzen zaien errentarientzat: errentariak urtean aparteko luzapena izateko aukera kontratua amaitu ondoren, indarrean dagoen kontratuaren baldintza berberetan. Urteko luzapenak, eta gehienez hiru.

- Errentari berrientzat: alokairuaren prezioa aurreko kontratuaren errentara mugatzen da, urteko eguneratze-klausula bat ezarrita. Modu horretan gehieneko igoera gehigarri batzuk ahalbidetzen dira lege ezarritako kasuetan.

- Azken bost urteetan alokatu gabe egon den etxebizitza baten errentarientzat: prezioak ezingo du gainditu erreferentziako prezioen indizeen sistemari jarraituz aplikatzekoa den gehieneko muga.

- Edukitzaile handientzat: hamar etxebizitza dituztenak izatetik tentsio handiko eremu izendatutako eremu berean bizitegi-erabilerako hiri-lurreko bost ondasun higiezin edo gehiago dituztenak pasatzeko aukera izango da, justifikazio-memoriak hala adierazten badu. Etxebizitza edukitzaile handi batena bada, prezioak ezingo du gainditu erreferentziako prezioen indizeen sistemari jarraituz aplikatzekoa den gehieneko muga.

Antxeta
 TABERNA
 egunero irekitzen dugu!
 eguneko menua · asteburuko menua
 oilasko erreak, ogitartekoak, razioak...
 paellak enkarguz!
 943 54 43 12 Zubiaurrenea 6, Usurbil.

Kim
 MASAJE LEKUA
 · KIROL MASAJEA
 · MASAJE TERAPEUTIKOA
 · KOLONAREN HIDROTERAPIA
 Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ZALDIGAIN
 ERREMENTARIA
 · Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
 · Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuak...
 www.zaldigain.com · info@zaldigain.com
 Tfno. 943593303 · Mugikorra: 677463867



Mikel Alzaga eta Xabat Beloki Euskadiko jubenil nesken taldeko entrenatzaileak, jokalariekin batera ospakizunetan.

"Aurten bageneukan esperantza txiki bat irabazteko"

XABAT BELOKI ETA MIKEL ALZAGA EUSKADIKO JUBENIL NESKEN TALDEKO HAUTATZAILEAK

Espainiako Erkidegoen arteko lehiaketan zilarrezko domina eskuratuta iritsi ziren etxera Usurbilgo entrenatzaileak 2023ko azken egunean. Urtea ezin modu borobilagoan itxi dute entrenatzaileek.

Euskadiko Eskubaloi Selektzio Jubenil Nesken entrenatzaileak dira Mikel Alzaga eta Xabat Beloki. Urteak eman dituzte herriko klubean entrenatzaile lanetan, eta Euskadiko Selektzioarekin dabilta neskak entrenatzen. Lortu duten azken garaipen handia izan da Espainiako Erkidegoen arteko txapelketan erdietsitako zilarrezko domina.

NOAUA! Euskadiko Selektzioarekin Espainiako Erkidegoen arteko Txapelketan zilarrezko domina lortu duzue gabon hauetan. Esperotako postua izan da? Xabat Beloki: Txapelketa urtero jokatzen da Espainiako

erkidegoetako selektzio guztiekin. Gironan jokatu genuen 7 egunez. Egutero partida bat jokatu genuen lehen hiruak multzoko partiduak izanik, eta gainontzekoak final laurdenak, final erdiak eta finala. Uste baino emaitza hobea lortu genuen, egia esan. Gure asmoa lehen lauen artean geratzea zen, baina ez genuen inondik inora ere espero finaleraino iristea. Oso gustura gaude lortutako emaitzarekin.

Txapelketan zeintzuk izan ziren arerio gogorrenak? Lehen postuagatik egin zenuten borroka horretan zenbatean amaitu zen partida eta noren aurka izan zen?

Mikel Alzaga: Finala Andaluziako Selektzioaren aurka izan zen. Faborito garbiak ziren eta bagenekien irabazteko aukera gehien haiek zituztela. Multzoko partidetan haien aurka jokatzea tokatu zitzaigun final aurretik, eta hura izan zen galdu genuen partida bakarra. Katalunia

"HIRU ALDIZ EGIN DUGU BIGARREN, ETA GAINERA, HIRU URTEZ JARRAIAN. HURRENGOAN BEHARKO DU"

ere arerio gogortzat geneukan, etxean jokatzen zutelako. Finalerdia gogorra izan zen Valentziaren aurkakoa, haiek ere faboritoetakoak baitziren. Finala 33-29 amaitu zen. Hiru aldiz egin dugu bigarren, hiru urtez jarraian. Aurten bageneukan halako esperantza txiki bat irabazteko. Hurrengoan beharko du.

Herriko jokalaririk ez, baina gipuzkoarrez osatutako taldea eraman zenuten ia osorik. Jubenil mailan nesken kasuan, Gipuzkoan maila altua dago?

X.B: Kopuru aldetik ere Gipuzkoan jokalaria gehiago daude.

M.A: Bilboko Kukullaga taldean maila oneko jokalaria ari dira ateratzen azken aldian. Hiru jokalaria dauzkagu talde horretakoak, baina, orokorrean, gipuzkoarrak izaten ditugu gehien.

Jubenil mutilen kasuan, Euskadiko selektzioarekin jubenil mailan badabil usurbildar bat: Peru Iraeta. Beste maila batzuetan ere badira usurbildarrak. Zuek Euskadiko selektzioan entrenatzaile lanetan izan duzue inoiz Usurbilgo jokalaririk azken urteetan?

X.B: Bai, tokatu izan zaigu. Duela bi urte Udane Makazagarekin aritu ginen. Usurbildik lau jokalaria aritu dira aurtengo txapelketan, Peru Iraeta jubenil mutiletan, eta Aimar Iraeta kadete mutiletan. Anaiak dira, gainera. Infantil nesketan, Maddi Orbegozo eta infantil mutiletan, Manex Manterola. Ordezkaritza zabala eraman dugu Usurbildik, eta alde horretatik, oso pozik gaude.

Noiztik zabiltzate Euskadiko selektzioan entrenatzaile?

M.A: Nik sei urte daramatzat. Bi urte egin nituen bigarren entrenatzaile modura beste lankide batekin, eta hark utzi zuenean ni jarri nintzen lehengo. Hiru urte dira lehen entrenatzaile naizenetik, eta nire bigarrentzat Xabati pro-

→ posatu nion nirekin aritzeko. Lehen entrenatzaile naizenetik, hiru aldiz geratu gara bigarren.

Nola iritsi zitzaizuen proposamena?

M.A: Lehengo hautatzaile eta zuzendari tekniko zen Hugo Sanchez eta bageneukan harremana. Euskadiko txapelketa irabazi genuen jubenil neskekin eta urte hartan laguntzera sartzeko proposamena egin zidan eta pixkanaka sartu nintzen. Gerora, lehen entrenatzaile egin nintzenez, Usurbilen nenbilen jubenilen entrenatzaile eta Xabat laguntzaile lanetan ibili zen. Proposamena egin nion selekzioan ere laguntzeko. Nik orduan jubenil mutilen entrenatzaile izateari uzteko intentzioa nukan eta konfidantza bageneuz, egokiena iruditu zitzaidan lan horietan laguntzeko.

Lehenago ere entrenatzaile izango zineten.

X.B: Ni Usurbilgo taldeekin aritu naiz lanean, batez ere. Aurten senior mutilak entrenatzen ditut. Joan zen urtean, Zarauzko Aiala taldean aritu ginen Mikel eta biok senior neskekin zilarrezko mailan. Mikel lehen entrenatzailea izan zen eta ni bigarrena. Igoeratik partida bakarrera geratu ginen. Aurten, Zarauzko Amenabar senior mutilen taldearekin dabil Mikel, lehen nazional mailan. Ni, berriz, Usurbilera itzuli naiz.

M.A: Ni ere Usurbilen aritu naiz txikitatik entrenatzen. Jubenil neskekin, garai hartan, Euskadiko txapelketa irabazi genuen eta kadete mutilekin ere nahiko txukun aritu ginen. Hortik etorri zen proposamena.

Jokalari gisa, zein taldetatik pasatu zineten?

M.A: Usurbilen egin nuen ia jokalaria ibilbide osoa. Jubeniletan, Arrate taldean ibili nintzen, gaur egun Eibar Eskubaloi taldea dena. Itzuli



Argazkiaren erdialdean eta zutik, Xabat Beloki eta Mikel Alzaga entrenatzaileak. Iaz ere bigarren izan ziren. MIKEL ALZAGA.

egin nintzen Usurbilera eta urte batzuetan iguera lortu genuen lehen nazional mailara. Hori gertatu eta gutxira, Bidasoak fitxatu ninduen eta denboraldi erdi bat egin nuen bertan. Hortik aurrera, gainbehera hasi zela esango nuke. Urtebete gehiago jarraitu nuen jokatzeko, baina gero utzi egin nuen. Entrenatzaile eta jokalaria lanak urte askotan egin ditut, biak batera. Entrenatzaile lanetan duela 14 bat urte hasi nintzen, kadete nintzela infantilak entrenatuz. Azkenean, nekatu egin nintzen jokatzeko eta ia konpromisoa egiten nuela konturatu nintzen, eta horregatik utzi nuen. Entrenatzaile lanak gehiago disfrutatzen nituen jokalaria ibiltzea baino.

X.B: Nik ibilbide osoa Usurbilen egin nuen. Nahiko goiz utzi nion jokalaria izateari

entrenatzaile lanetan hasteko. Gogoia eta ilusioa behar baino goizago amaitu zitzaidan jokatzeko jarraitzeko eta entrenatzaile tituluak ateratzea erabaki nuen. Gusturago sentitzen nintzen horretan, eta bide hori hartzea erabaki nuen. Geroz eta entrenatzaile gutxiago daude, eta beharrezkoa da entrenatzaileak egotea jokalariek ikasi eta jokatzeko aukera izan dezaten.

Euskadiko selekzioan izan zineten jokalaria? Zein oroitzen dituzue?

X.B: Urtebetez jokatu nuen erkidegoen arteko txapelketa hau kadete nintzela selekzioarekin. Zilarrezko domina lortu genuen urte hartan guk ere. Txapelketa bizitzeko modua oso ezberdina da entrenatzaile edo jokalaria izan. Entrenatzaile lanetan, urduritasun

maila handiagoa da erantzukizuna ere handiagoa delako.

Jokalari bezala ere urduritasuna nabari duzu, baina ez da maila berean.

M.A: Ni uste dut urtero joan naizela txapelketa selekzioarekin. Jokalaria ibiltzen nintzen garaiko oso oroitzapen onak ditut. Oso ondo pasatzen genuen nahiz eta partidarik ez irabazi.

Entrenatzaile lanetan zabalitzean urduritasun gehiagorekin joaten zara, nekatu gehiago eta presioa ere sentitzen duzu. Bizipen ezberdina da, baina oso polita.

Urte asko gehiago izango zarete entrenatzaile? Zein dira zuen etorkizunerako asmoak?

X.B: Selezioari dagokionez, otsailean daukagu bilera zuzendaritza teknikoarekin eta hor erabakiko da jarraituko dugun edo ez. Gure artean oraindik hitz egiteko aukerak daude. Zein proiektu dauden ikusi beharko dugu eta ea zer egin.

Usurbilen oraindik denboraldi erdia falta zaigu, beraz, gerora erabakiko dut.

M.A: Selektzioa ikusteke dago, baina gainontzekoan jarraituko dut, ziur. Ez dakit non, baina jarraituko dut.

"ORDEZKARITZA ZABALA ERAMAN DUGU USURBILDIK, ETA ALDE HORRETATIK, OSO POZIK GAUDE"

MIKEL ALZAGA

"GOGOA ETA ILUSIOA BEHAR BAINO GOIZAGO AMAITU ZITZAIKAN JOKATZEN JARRAITZEKO"

XABAT BELOKI

"Energiarekin harremantzeko beste eredu bat sustatu nahi dugu"

SORTALDE USURBILGO ENERGIA KOOPERATIBA

2022ko udaberrian, energia berriztagarrien inguruko hitzaldi bat antolatu zuen Usurbilgo udalak. Komunitate bat osatzeko planteamendua ekitaldi horretan bertan egin zen. 50 bat lagunek agertu zuten interesa eta iaiztik hona talde eragile bat aritu da lanean. Komunitatea zena kooperatiba bilakatu da eta datorren asterako aurkezpen publiko bat iragarri dute sustatzaileek.

Sortalde, Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatearen aurkezpen publikoa egingo duzue urtarrilaren 24an. Horrek esan nahi du dagoeneko entitate bat dela Sortalde, ezta?

Alazne Arruti: Hori da. Urrian jaso genuen aldeko ebazpena kooperatiben erregistrotik. Hasiera batean 30 bazkide-konsumitzailek eratu dugu kooperatiba eta egitasmoa herri mailan hedatu nahi dugu orain. Bazkidetza kanpaina zabalteko prest gaude.

Kooperatibaren berri emateaz gain, eskuartean dituzuen egitasmoak ere iragarriko dituzue datorren astean Sutegin egingo duzuen ekitaldian.

A. A.: Orain arte egindakoa azalduko dugu. Elkartearen eratze-prozesuari buruzko xehetasunak emango ditugu eta, bide batez, 2024. urterako egitasmoen berri emango dugu.

30 herritarrek abiarazi duzue Sortalde kooperatiba. Kide gehiago batu nahi dituzue orain. Kooperatibako bazkide egiteko zer nolako ekarpena egin behar da?
Fernando Iturralde: Bazkide-konsumitzaileak 100 euroko aportazioa egin behar du (dirua hala ere, ez litzateke arazo izango).

A. A.: Bazkide mota ezberdinak daude baina ohikoena bazkide-konsumitzaile egitea litzateke.

Elkartera batzeko gonbitea luzatzeaz aparte, 2024rako hainbat proiektu aurreikusi dituzue. Zerbait aurreratzetik bai?

Itxaso Santxez: Instalazio fotovoltaiako bat ari gara sustatzen. Horretaz gain, bestelako ekimenak ere bultzatuko ditugu. Kontzientzia kanpainak, besteak beste.

Non kokatuko da instalazio hori, udal eraikin batean akaso?

A. A.: Eremu pribatuan zein publikoan izan daiteke eta hor dago kokka. Gure egitasmoa bideratu samar dugu baina xehetasunak urtarrilaren 24an emango ditugu.

Estalki handi bat izango da lehen proiektua, 100 kilovatt-ekoa. Hori da aurreratu

ESTALKI HANDI BAT IZANGO DA LEHEN PROIEKTUA. "100 KILOWATT-EKO INSTALAZIO FOTOBOLTAIKO BAT"

dezakeguna. Proiektua finantzatu ahal izateko, dirulaguntza batera aurkeztu nahi dugu. Izen-ematea hain zuzen, horretarako baliatu nahi dugu: zenbat eta jende gehiago batu, hobeto aterako baita lehen instalazioaren egitasmoa.

F. I.: Gaur egun, 100 kilovatt-eko instalazioa da formatu errentagarriena eta egingarriena, eta hortara goaz. Proiektua aurreratu samar dago baina Sutegiko batzarrean erabaki beharreko kontua izango da.

A. A.: Dena den, zein teilatuan joango den ez da hain esanguratsua, baizik eta zenbatek nahi duten elikatu instalazio horretatik.

F. I.: Bestetik, Sortalde ez da horrelako egitasmoetara mugatuko. Kooperatibaren ideia haratago doa. Energiarekin harremantzeko beste eredu bat sustatu nahi dugu.

"SORTALDEKO BAZKIDE-KONSUMITZAILE BAKOITZAK 100 EUROKO APORTAZIOA EGIN BEHAR DU"

Hortaz, zeintzuk izango dira Sortalderen lan-ildo nagusiak?

A. A.: Batetik, kontzientzia sustatu nahi dugu. Herri mailan energiaren inguruan dagoen jakintzaren arabera, zer formakuntza edota zer nolako ahalduntzea behar dugun zehaztu nahi dugu eta horren inguruan egutegi bat proposatuko dugu. Gai ezberdinak jorratuko ditugu baina zer nolako ekintzak egingo diren zehazteke dago oraindik.

Bigarrenik, aholkularitza eskaini nahi dugu. Faktura tailerra egiten hasi gara dagoeneko, elkarri lagunduz. Eta aukera hori ere eskaini nahi diogu herriari.

Eta azkenik, energia sortzeko ze aukera dugun jarri nahi dugu mahai gainean.

"Ikasi dezagun elkarrekin jasangarriagoak izaten eta sortu dezagun gure energia propioa". Proiektu komunitarioak bakarrik sustatuko dituzue ala etxeetako autokontsumoak sustatzeko egitasmoak ere bultzatuko al dituzue?

F. I.: Helburua da energiaren burujabetza sustatzea, makroenpresetatik ihes egitea – ahal dugun neurrian, zaila izango dela jakin arren – eta energia aurrezteko zein energia kudeatzeko beste modu bat bultzatzea.

Galderari helduz, bai, bateragarria da gure egitasmoarekin. Ez dakit noraino lagundu ahal izango dugun hortan baina gure egitasmoan horrelakorik ere sartzen da. Baina hasteko, egokiena iruditu zitzaigun instalazio fotovoltaiako kolektibo bat sustatzea.

A. A.: Formula ezberdinak egon daitezke. Izango da bere teilatuan instalaziorik jartzeko aukerarik ez duena. Aldiz, modu kolektiboan eginda, kostuak aurrezten dira eta bere onurak ditu. Adibidez, hainbat etxebizitzetako jabeek instalazio bat egin nahiko balute euren teillatu propioan, materialaren erosketa batera egiteko aukera lukete.



Urtarrilaren 24an aurkeztuko da Sortalde Usurbilgo Energia Berriztagarrien Kooperatiba baina prestaketa lanak askoz lehenago hasi ziren. Argazkia, artxibokoa.

Egoitzarik badu Sortaldeak?

A. A.: Leku fisiko bat eduki nahi dugu baina momentuz Potxoenean batzen gara. Udalak bestetik, energia aholkularitza zerbitzu bat jarri berri du martxan eta guk bulego horren lana konplementatu edo osatu nahi genuke. Udaltzari horrek bere irismena izango du baina guk ere izango dugu zer eskainia.

Herritarrei bakarrik zuzenduta dago kooperatiba ala dendariak zein herriko enpresek ere parte hartu dezakete?

I. S.: Parte hartzeko modu ezberdinak daude. Herritar bezala, enpresa bezala... Baldintzak eta betebeharrak ezberdinak dira baina herriko dendariak zein enpresariak atak zabalik dituzte.

F. I.: Herriko komertzioarentzat oso interesgarria izan daiteke ekimen hau. Kontsumo motarengatik adibidez,

eguzki panelen bidezko hornikuntza oso mesedegarria izan daiteke zenbait dendariarentzako. 0 km politikarekin bat egiten dugunez, herrian kontsumituz ere energia aurrerzten ari gara.

Hortaz, urtarrilaren 24ko ekitaldia, kooperatibaren berri emateko eta herritar gehiago batzeko xedez antolatatu duzue.

A. A.: Hori da. Gaur egun, sortalde.eus gure web orriari galderak bat ipini dugu eta hor azaltzen da bazkide egiteko ze urrats eman behar diren.

"HERRITARRENTZAT EZ EZIK, HERRIKO KOMERTZIOENTZAT ERE INTERESGARRIA IZAN DAITEKE EKIMEN HAU"

Urtarrilaren 24an asteazkena, aurkezpen publikoa Sutegin

Sortalde izena jarri diote Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitateari. Taldearen berri eman eta bazkide berriak egiteko xedez antolatatu dute datorren aste saioa.

"Trantsizio energetikoaren erronkari aurre egiteko asmoarekin sortu den eragile berri hau ezagutzeko gonbita luzatzen dizuegu. Ikasi dezagun elkarrekin jasangarriagoak izaten eta sortu dezagun gure energia propioa! Zatoz, eta ezagutu 2024ari begira ditugun asmoak", aditerra eman dutenez.

Sutegin egingo duten bilkuran, Sortalderen



Kooperatibaren logotipoa.

lehen proiektuak azalduko dituzte eta bazkide izateko eman beharreko urratsak argituko dituzte.

Urtarrilak 24 asteazkena

- 18:30ean, Sutegin.
- Harremanetarako: info@sortalde.eus
- Antolatzailea: Usurbilgo Energia Berriztagarrien Komunitatea.



Aitzaga Kultur Elkarteko kideak bilgunearen irudi berriarekin, iragan astean Potxoenean egin zuten bilera amaieran ateratako argazkian.

30 urteko hegaldiari gorazarre

30 urte beteko ditu aurten Aitzaga Kultur Elkartek. Orain hasita, lehen urte erdi honetarako ekimen zikloa iragarri dute. Ekainaren 1ean jaialdi batekin borobilduko dute, hiru hamarkada hauei gorazarre egin eta indarberritzea xede duen urtemuga hitzorduen tartea.

30 urte beteko ditu aurten Aitzaga kultur elkarteak eta ondoko irudian ikus dezakezuen moduan, ez da oharkabea igaroko. Urtarrilaren 12an Potxoenean egin zuten bazkideen urteroko ohiko bilkura nagusiaren amaieran ateratako talde argazkia duzue. Irudi berria estreinatuta du elkarteak eta sarritan ikusiko dugu datozen hilabeteotan. Izan ere, hiru hamarkada hauen harira, datozen hilabeteotan antolatuko dituzten ekimenetarako baliatuko dute "30 urtez hegaldian" aldarria daraman ilargiak argiztaturiko arrano beltzaren logoa. Orain hasi eta ekainera arte, hilero ekimenak iragarri dituzte Aitzagatik; izaera politikodun hitzaldi eta mahainguruak, aisialdira zuzendurikoekin tartekatuko dituzte.

Aurrerago eskainiko dituzte xehetasun gehiago, baina lehenengo hitzordua hilaren 26rako iragarri dute. Abenduan, Usurbilgo gazte mugimenduak antolaturiko topaketan amaieran, Aitzaga atarian egindako kontzertu jendetsuaren ondotik, Amebaren kontzertua antolatu du, oraingoan hiru hamarkada betetzear den kultur elkarteak. Hortik aurrera, ekainaren 1eko data gure agendetan gordetzeko eskaera egin dute aipatu kultur elkartetik. Izan ere, larunbat horretarako egun osoko jaialdia antolatzen ari dira.

Bazkietza

Hilabeteotan hiru hamarkada hauetako ibilbideari gorazarre egin nahi diote, herri-gintzan egindako ekarpena

eta sorreratik gaur arte bilgunean eragiten aritu direnen ahalegina aitortu nahi dute baita. Horrez gain, aurrera begira, indarberritzeko erabili asmo dute Aitzaga kultur elkarteko kideek. Bazkietza sustatzeko ere baliatu nahi dute ziklo hau. Hiru bazkietza mota dituzte: bat, soldatapeko lan egonkorrik ez duten 16-25 urte arteko gazteentzako (hilean 5 euro); helduentzako bestea (hilean 20 euro); 10 euro bazkietzagatik, beste 10 euro Sortu kide izateko); azkena, bazkide onuradunentzat, bazkide den

**EKAINAREN 1A
GURE AGENDETAN
GORDETZEA
ESKATU DUTE**

horren etxe bereko kideei zuzendurikoa (hilean 5 euro).

Urtemuga betean

Aitzaga elkartetik bazkide izaera animatzen dituzte herritarrrak, baita noski, laster iragartzen hasiko diren ekimenetan parte hartzera ere. Hain zuzen, herritar orori begirakoak izango dira hitzorduak. Elkartean luntx eder batekin amaitu zuten iragan ostiraleko bazkideen bilkura nagusia izan zuten abiapuntua. Segida emango diote laster, deialdiok:

Aitzaga Kultur Elkartek 30 urte

Urtarrilak 26, ostirala
20:00 Sareren Mikel Laboa plazako elkarretaratzea.
Segidan, Amebaren kontzertua Aitzaga atarian.

Ekainera arte

Hilero izaera politikoko nahiz aisialdira begirako ekimenak.

Ekainak 1, larunbata

Egun osoko jaialdia; bazkaria, kontzertuak... Xehetasun gehiago, aurrerago. Antolatzailea: Aitzaga Kultur Elkartea.

Energia aholkularitza zerbitzua, berriz ere martxan

Klima aldaketa eta energia trantsizio teknikaria kontratatu du udalak, eta, bestek beste, herritarrei begirako zerbitzua eskainiko du, doan, udaletxean eta herri-auzoetan. Aldez aurretik eskatu behar da hitzordua.

Urtarrilaren 22tik aurrera martxan izango da berriz ere energia aholkularitza zerbitzua. Zerbitzu horren bidez, "batik bat, herritarrek argindarraren fakturei buruz zein energia berriztagarriei buruz izan ditzaketen zalantzak argitu ahal izango dituzte", udal iturriek aditzera eman dutenez. Zerbitzua doakoa izango da, eta udaletxean zein herri-auzoetan eskainiko du: beharrezkoa izango da aldez aurretik hitzordua hartzea.



Fakturen edo energia berriztagarrien inguruko informazioa eskuratu ahal izango da bertan. ARGAZKIA: UDALA

Energia aholkularitza zerbitzua, udaletxean:

Asteartetik ostiralera, 09:00etatik 13:00etara.

Energia aholkularitza zerbitzua, herri-auzoetan:

Asteleheneretan, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara.

- Zubietan (Kaxkapen): hilabeteko lehenengo astelehenean.
- Santuenean (auzo elkatearen lokalean): hilabeteko bigarren astelehenean.
- Aginagan (Eliza Zaharrea): hilabeteko hirugarren astelehenean.
- Kaxkoan: hilabeteko laugarren astelehenean, 09:00etatik 13:00etara udaletxean; 16:00etatik 19:00etara, Potxoenean.

Hitzordua hartu behar da aldez aurretik:
943 37 19 51
iromero@usurbil.eus

Ikastetxeetako matrikulazio garaia, otsailean

Otsailaren 7an irekiko dute 2024-25 ikasturterako matrikulatzeko epea. Hilaren 23ra arte luzatuko dute eskabideak eta egiaztagiriak aurkezteko denbora tartea. Honen harira, Udarregi ikastolak ate irekien jardunaldi eguna deitu du urtarrilaren 27rako; lehen saioa 10:30ean, bigarrena 12:00etan.

Musukoen beharra osasun zerbitzuetan

Neurri hau indarrean da iragan urtarrilaren 10az geroztik. Madrildik heldutako agindua betereziko duela iragarri arren, helegitea aurkeztuko duela azaldu du Jaurlaritzak.

650

USURBIL

bizi

LAN DEIALDIA - TURISMO GIDARIAK

650 Usurbil Bizirik turismo eredu proiektuaren bisita gidatuak egiteko
GIDARIEN lan-poltsa osatzeko deialdia.

Noaua! K.E.ak ordukako kontratua eskaintzen du.

Asteburuetan ere disponibilitatea beharko da. Bisitek urteko egutegia dute.


Betebeharrak:

- KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA IZATEA. Turismo, Kultura, komunikazio edo jarduera soziokulturalekiko interesa edo esperientzia kontutan hartuko da.
 - EGA edo baliokidea izatea eta gazteleraz aritzeko arazorik ez izatea.
- KANPO HIZKUNTZAK JAKITEA. Ingelera edota frantsesaren ezagutza beharko da

Baloratuko dira:

- Harremanetarako eta komunikaziorako gaitasuna.
- Ekintzailea izatea eta proiektuak sortzeko gaitasuna izatea.
- Kanpoko hizkuntzak jakitea.
- Herrigintzan esperientzia izatea.
- Turismo alorrean esperientzia izatea.
- Webguneak eta sare sozialeen kudeaketan ezagutza izatea.
- Gida baimena eta autoa izatea


Interesatuak bidali curriculumak elkartea@noaua.eus helbidera
2024ko urtarrilak 29 baino lehen.



SUDOKUA



Hau kiratsa!!! Arrautza ustelen bat hautsi da? Paper fabrika lanean ari dira? Arranopola, zer gertatu da hemen?! Bete itzazu hutsuneak KIRATS hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (K, I, R, A, T eta S). Kontuan har hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Zure ustez kiratsaren iturria izan litekeen hori marraz ezazu laukian.

Gaiztometroa




B	L	A	C	K	I	S	B	E	L	T	Z
N	O	I	R	E	G	I	X	K	U	N	I
		(H	K	B	O	R	T	Z	I	R
!	(U	N)	E	S	K	E	L	E	N
M	U	R	M	I	L	K	A	W	?	S	=
K	R	I	M	I	B	A	L	I	S	T	I
U	R	G	A	I	N	E	L	T	U	L	A
Z	U	Z	T	A	R	B	I	Z	B	A	T
X	/	O	Q	!	F	P	E	A	D	U	E

Hiltzailerik zikoitzenak eta detektiberik petrarenak Baztanen biltzen dira urtarrilean. Ba al dakizu zergatik? Nobela beltzaren astea antolatzen dutelako han, hain zuen. Eta ba al dakizu zer izen duen jaialdi horrek? Ez? Jarraitu gezien norabideari, eta bidean batzen dituzun hizkiak idatzi lauki zurietan, hurrenez hurren. Hortxe aurkituko duzu erantzuna.

HANDIENETIK TXIKIENERA

Ordena itzazu handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienera 9.





Lagundu gure detektibe pareari gaizkilearen arrastoa jarraitzen. Labirinto honetan giza urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ezin duzu diagonalean mugitu.



Osatu


Hara, ba azkenean ez zegoen gaizkilerik, gure maskota Zangotxoren txantxa bat besterik ez zen, galtzerdiak eta oinetakoak jantzita ibili baita labirintoan. Marraztu iezazkiozu.



Zeeer?!!

Eman irudiño bakoitzari bere hizkia, eta esandakoa deskubrituko duzu. Erabili beheko alfabetoa.

ESAN BOST HITZ ITSUSI



Soluzioak 20. orrialdean.



Ana Elordui adierazi digunez, "bada momentua euskaraz harro bizi nahi dugula eta bizi garela adierazteko".

"Gogoan izan behar dugu Korrika aldarrikapenerako ekimena dela"

ANE ELORDUI KORRIKAREN KOORDINATZAILEA

Martxoaren 14an abiatuko da Korrika, Irundik, eta martxoaren 24an iritsiko da Baionara. Hamaika egun euskararen alde korrika, eta, poliki-poliki, ari dira aurtengo edizioaren xehetasunak ezagutzen. Aurreko astean aurkeztu zuten ibilbidea; hori eta aurtengo edizioari buruz gehiago jakiteko, Korrikaren koordinatzaile Ane Elordi elkarrizketatu du TOKIKOMek.

Duela urtebete pasatxotik zaitugu Korrikaren koordinatzaile, Asier Amondori lekukoa hartuta; zer moduz?

Ondo. Korrika arduraduna izatea izugarritzko ardua da. Nik beti esaten dut bakarrik ez dela egiten lan hau. Talde handi baten laguntza jasotzen dut eta egunerokotasunean taldean aritzen gara. Apurka-apurka, bagoaz edizioa prestatzen.

Nola definituko zenuke Korrika? Korrika zerbait bada, nire ustez, emozio-jai bat da, bai-

na ezin dugu ahaztu, sarri, jai horretan gelditzen garela eta oso presente eduki behar dugula aldarrikapenerako ekimena dela. Euskararen inguruan antolatzen den Euskal Herriko ekimenik erraldoiena da. Gizarte osoa mugiarazten du eta muga bakarra hizkuntza bera da. Orduan, oso ekimen potentea da.

Zu zeu egitasmoaren gidari zarela egingo den lehen Korrika izango da; 2024koan zertan igarriko da gidaritza aldaketa hori?

Bakoitzak bere aletxoak jartzen dio. Lehen esan dudan moduan, nik taldeari garrantzi

"EUSKARAREN INGURUAN ANTOLATZEN DEN EKIMENIK ERRALDOIENA DA KORRIKA. GIZARTE OSOA MUGIARATZEN DU"

handia ematen diot. Azkenengo ikasturtean askotarikoa hausnarketak eraman ditugu aurrera. Euskara da guretzat erdigunea, baina badakigu 'Harro herri' eta euskararen 'Harro herri' hori sortzeko beste arlo batzuetan ere eragina eduki behar dugula. Esaterako, gizarte erantzukizuna landu izan dugu, aztarna ekologikoa ere bai... Korrikak arropak ateratzen ditu, eta arropa horiek nondik datozen azterketa egin dugu; saiatu gara hurbiltzen materialetan ere berrikuntzak sartzen. Ez da erraza. Ezin dugu ahaztu Korrikak bi helburu dituela: bata, euskararen kontzientziazioan suspertzea; eta bestea, AEKrentzat baliabide ekonomikoak batzea. Orduan, oreka hori mantenduta pauso txikiak egiten aurrera goaz. Euskarrirei dagokienez, Korrika hurbildu ahala Euskal Herri osoa apaintzeko ardua hartzen dugu AEK-ko kideok, baina apaintzea hori, sarri, plastikoz jantztea dela iruditu izan zaigu. Orduan, horri aurre egiteko, materialak eta beste modu bateko apaintzea batzuk sustatzen gabil-tza.

Horiek guztiek eta aurreko edizioak izandako dimentsioa kon-tuan izanik, ez duzue erronka makala aurretik.

Azkenengo edizioan, batez ere, kilometroz kilometro jendetza egon zen. Harrera oso beroa izan zen, baina Donostiako bukaera izugarria izan zen. Orduan, orain arte, azaroaren 16an aurkeztu genuenetik harrera ere oso ona izan da eta aurreikusten dugu bide beretik joango dela 23. edizioa.

Eta nola hartu tamaina? Nola egin patxadazko antolaketa bat? Nola ari zarete?

Ez da erraza, baina bagabiltza. Eguneroko lana da. Batzuek duela gutxi Gabonetako opo-

→ rrak izango zituzten. Gu, beste martxa batean, baina lanean ibili gara, eta apurka-apurka. Bada gustura egiten den lan bat, eta, behin Korrika amaituta, orduan hartuko dugu atsedena.

'Harro herri' lelopean egingo da; azaldu iezaguzu hitz pare horren ideia.

Batetik, azpimarratu nahi izan dugu badela momentua euskaraz harro bizi nahi dugula eta bizi garela adierazteko. Harro, baina ez konforme. Aldi berean, lehen esandut Korrika aldarrikapenerako egitasmoa dela, eta ezin dugu ahaztu azaroaren 4an Kontseiluak deitutako manifestaldi hartan bildutako jende guztia. Hori da, gure ustez, badagoela gogo bat euskaraz 'Harro herri' sortzeko. Orduan, gutako bakoitzak nahiz eta ezberdina izan, bakoitzak bere iritzi, pentsaera eta jokaerak izango ditu, baina hizkuntza berak batuko gaitu. Euskaraz batuta sortuko dugu komunitatea 'Harro herri'.

Aurtengo omendua: Azterketak Euskaraz kolektiboa. Baxoa – Frantziako Estatuan goi-mailako ikasketak egin ahal izateko ezinbestean eskuratu behar den titulua– eta Brebeta –Frantziako Gobernuak 14-15 urteko ikasleei euren kolegioko eskolaratzea gaingitu dutela ziurtatzeko ematen dien diploma–; bi azterketa horiek euskaraz egiteko borrokan dabilzan ikasleak omenduko dituzue.

Sarri, iruditzen zaigu hegoaldean Azterketak Euskaraz kolektiboaren borroka hori ez dela askorik ikusten edo ez dela ezagutzen. Orduan, 23. edizioan iruditu zaigu momentu ona dela eurei aitortza egiteko, badelako borroka luze bat. 25 urte edo gehiago izango dira hasierako ikasle haiek planto egiten hasi zirenetik, hizkuntza eskubideen aldeko aldarrikapenen borrokan hasi zirene-



"Korrikak bi helburu ditu: bata, euskararen kontzientziazioan suspertzea; eta bestea, AEKrentzat baliabide ekonomikoak batzea".

tik. Eta 25 urte hauetan, batetik, belaunaldiz belaunaldi egindako transmisio bat izan da eta lortu dituzte proba batzuk euskaraz egitea. Azken hilabeteetan atzerapausoa ere eman da, ez dituztelako galderak euskaraz jasoko, baina ikusten dugu lanean ari direla, eta horregatik aitortu nahi izan dugu egunerokotasunean egiten duten

"BAKOITZAK BERE IRITZI, PENTSAERA ETA JOKAERAK IZANGO DITU, BAINA HIZKUNTZA BERAK BATUKO GAITU"

borroka hori. Gainera, erdigunean jartzen diren egitasmoaren sustatzaileak ikasleak dira, momentu honetan direnak edo izan direnak. Inguruan badituzte irakasleak, Seaskaren inguruan mugitzen diren gainontzeko kideak eta gurasoak. Baina gaztetxo horiek izatea egitasmoaren bultzatzaile oso interesgarria iruditzen zaigu.

"IRUDITZEN ZAIGU 'AZTERKETAK EUSKARAZ' KOLEKTIBOAREN BORROKA HORI EZ DELA ASKORIK EZAGUTZEN HEGO EUSKAL HERRIAN"

"Irungo kideek proposatu zuten bertan hastea"

23. edizioa izango da aurtengoa; martxoaren 14tik 24ra egingo da, Irundik Baionara. Zer dela eta?

AEK barruan irizpide batzuk ditugu. Azkenengoa Donostian amaitu zenez, herrialde horretako herri batetik abiatzea da irizpideetako bat. Gipuzkoak Irun proposatu zuen. Zergatik Irun? Korrika jarraitzaileak bagara, azkenengo hasierakizan dira herri txiki, arnagune eta halakoetan. Baditugu Amurrio, Otxandio, Urepel... Bat-batean Irun. Irun bada Gipuzkoako bigarren herririk populatuena, eta, aldi berean, Gipuzkoak badauka ezaugarritzat arnagune izatea Euskal Herri mailan, baina arnagune horren barruan dena ez da urre. Horren adierazle izan daiteke Irun. Irungo kideek proposatu zuten bertan hastea, eta egokia iruditu zitzaigun. Batetik, badelako berta euskalgintza indartzeko modu bat. Guk azaroaren 16an nazio mailako aurkezpena egin genuen. Aste hartako zapatuan Irungo euskalgintzak deialdia egin zuen eta jendearen harrera eta erantzuna oso ona izan zen. Orduetik, badabilta lehen eguneko egitaraua antolatzen herri mailako eragileekin.



22. Korrika ere gauez igaro zen, 2022ko apirillean.

Gauez helduko da 23. Korrika geure artera

Martxoaren 19an, gaueko 23:00ak baino lehen helduko da 23. Korrika gure artera. Zubietan hasi eta Aginagara arte, "Harro Herri" garela aldarrikatzeko aukera izango da euskararen aldeko lasterketa honetan. Ekimen honen ibilbidea zehaztu du egunotan AEK-k.

23. Korrika badator! Martxoaren 14an Irunen hasi eta 24an Baionan amaituko den euskararen aldeko lasterketarekin bat egiteko unea hurbiltzen ari da. Adi, 22. Korrikaren antzera, datorrena ere gauez helduko da gure artera, baina kontrako noranzkoan. 2022ko apirilaren 8an Aginagatik Zubietara zeharkatu zuen udalherri hau. Alderantzizko bidea egingo du oraingoan; Zubietan hartuko du herri honek Lasarte-Oriak utzitako lekukoa eta Aginagako Mapilen oriotarrei helaraziko die. 23. Korrika martxoaren 19an izango dugu gure artean, gauez aipatu moduan, asteartearekin; 22:53 aldera. Mezu sekretua barnean goxo asko eramango duen lekukoa ordubete inguruz izango dugu bertako kale eta bideetan barrena. Izan

ere, gauerdian, 23:57 aldera oriotarren esku utzi beharko du Usurbilek.

Hamaika kilometro

22:53-22:57 artean, beraz, euskararen aldeko lasterketa entzutetsuak Zubietara, Santuenea, Kalezar, Kaxkoa, Atxegalde ingurua eta Aginagazeharkatuko ditu. Guztira, hamaika kilometroko ibilbidea osatuko du 23. Korrikak geure artean; lehenengo lau kilometroak Zubietako lurretan barrena egingo ditu, bosgarrena Santuenean, seigarrena Kalezarren. Zazpigarren kilometroan Puntapax ingurura helduko da Korrika. Azkeneko lau kilometroak N634 errepidetik barrena egingo ditu; hasi Atxegalde paretik eta Aginagako Mapileraino. Usurbil izango da Korrika

egunotako bati amaiera emango dion udalherria.

Erdibidean

Izan ere, aipatu moduan, martxoaren 19an helduko da, gauez; gauerdian utziko dio lekukoa Oriori. Bigarren bitxikeria badu baita hitzordu honek; gutxi gorabehera, ibilbidearen lehen erdia eginda hartuko du lekukoa udalherri honek. 2793 kilometroko bidean, 1365-1375 kilometro arteko bide zatia Usurbilena izango da martxoaren 19ko gauean. Gipuzkoara sartu

USURBILEK EMANGO DIO AMAIERA KORRIKA EGUNETAKO BATI

berritan izango da, gainera. Iluntzeko 20:00etan sartuko da eskualdean Arano aldetik Hernanira. Handik Urnieta eta Lasarte-Oria igaro ostean iritsiko da gure artera.

Bitan Beterri Buruntzan

Eskualdea bera bitan zeharkatuko du euskararen aldeko lasterketak; martxoaren 19an eta lau egun beranduago berriz, hilaren 23an. 16:00ak aldera Tolosaldeatik Andoainera iritsiko da; Usurbil ere "kide" duen Beterri Buruntzako Urnieta (16:42), Hernani (17:06) eta Astigarragatik (17:49 aldera) igaroko da gero. Handik, Gipuzkoako hiriburu barneratuko da Martutene aldetik. Gaueko 22:47an Alztatik irten arte, Donostia-ko auzoak zeharkatuko ditu larunbat iluntzean, hilaren 23an. Oarsoaldea goizalde partean gero, eta tartetxo batez, sartu-irten azkarra egingo du Bortzirietatik barrena, segidan Lapurdira itzuli eta igande eguerdian Baionan amaitzeko.

Ibilbidea

Honax 23. Korrikak martxoaren 19an, gauez Usurbilen barrena egingo duen hamaika kilometroko ibilbidea:

- 22:53:38** 1365. km: Zubietako hipodromo etorbideko zubia.
- 22:57:04** 1366. km: Irigoien, 34 (Zubieta).
- 23:03:34** 1367. km: Larrantza pasealekua, 23 (Zubieta).
- 23:10:04** 1368. km: Larrantza pasealekua – Amiri (Zubieta).
- 23:16:34** 1369. km: Santuenea, 37.
- 23:23:04** 1370. km: Belmonte, 1 (Kalezar).
- 23:29:34** 1371. km: Puntapax, 24 (Artzabal).
- 23:36:04** 1372. km: N-634- 4.
- 23:42:34** 1373. km: N.634-5.
- 23:49:43** 1374. km: Aginaga, 12.
- 23:57:31** 1375. km: N-634 km- 8, Aginagako Mapil barrena.



Etumeta AEK euskaltegian nahiz korrika.eus atarian eskura ditzakezue 23. Korrikako produktuak.

23. Korrika laguntzeko bideak zabalik

23. Korrikan parte hartu nahiz ekimena laguntzeko aukera bat baino gehiago dugu eskura.

Aurreko edizioen antzera, Korrika Laguntzaile izan gaitezke eta hainbat abantailez gozatu ahalko dugu: 300 sari baino gehiago eskuragarri jarriko dituzten asteroko zozketak, Korrikaren nahiz AEK-ren ekimenetan lehentasuna edo deskontuak (AEK-ko ikastaroetan, AIZU! aldizkariko harpidetzan...), ekimenaren berri emango duen buletina jasotzeko aukera... Korrikaren aplikazio berrian, txartel birtuala eskuratzeko aukera izan-

go duzue. 23. Korrikak, gainera, prest du baita bere produktuen eskaintza; arropa, petoak, osagarriak... Usurbilen, lehenbiziko aldiz, NOAUA! Kultur Elkarteak abenduaren 17an antolatutako San Tomas azokan ikusgai eta erosteko moduan jarri zituzten Etumeta AEK euskaltegikoek. Aurrerantzean, euskaltegian bertan ere salgai izango dituzue edota online korrika.eus atarian. Eskaintza horretan berrikuntza bat nabarmendu digute

Usurbilgo AEK-tik; "Harro Herri" aldarridun banderola koloretsuak. Estreinakoz eskuratu ahalko dira euskaltegiara joanda.

Kilometroak eskuratzeko aukera

Adi, baita, lekukoa eraman nahi duzuenok. Euskararen aldeko lasterketa herrikoiak udalerrri honetan egingo duen ibilbideko kilometroak eskuratzeko aukera duzue. "Kilometro osoa edo erdia" erosi ahalko dela ohartarazi dute Etumeta AEK euskaltegitik. "Urteroko eragileei bidali genien mezu bat eta jakinaren gainean daude", zehaztu dute. Halere, beste inork ibilbideko zati batean lekukoa eraman edo horri buruzko informazioa jaso nahi badu usurbil@aek.eus helbidera idaztea eskatu dute eta "gu jarriko gara haiekin harremanetan".

Korrika.eus atariarekin batera, mugikorretarako aplikazio berria

Mugikorrean doan deskarga dezakezue. "Aurreko ediziotik hona, guztiz itxuraldatuta dator: hainbat atal berri ditu; adibidez, Korrika Laguntzaile txartela txertatuta dakar, eta aplikazioaren baitan eramateko aukera eskaintzen du, mugikorrean

bertan. Horrez gain, astero Korrika Laguntzaileen artean egingen diren zozketak (eta, noski, irabazleak) erakusten dira bertan". Ibilbidea ere aplikazio honetan ezagutarazi zuten lehenbizi eta bertatik, 23. Korrika zuzenean ikusi eta entzuteko aukera eskainiko du mar-

txoaren 14tik 24ra. "Furgoneta-geolokalizazioaren bidez, erabiltzaileek une oro egiaztatu ahal izango dute nondik dabilen lasterketa". Horri lotuta, "aplikazioak aukera ematen du Korrikaren inguruko jakinarazpen eta jakingarri garrantzitsuenen berri jasotzeko. IOS zein Android bertsioentzat dago eskuragarri".

Korrika Batzordea osatu eta girotze lanen hasiera

Datorren euskararen aldeko lasterketara begira, girotze lana bideratzen hasteko Korrika Batzordea osatu eta antolaketa lanei ekiteko lehenengo bilera deitu dute datorren urtarrilaren 24rako, iluntzeko 19:30etan Etumeta AEK euskaltegian (Kale Nagusia, 43). Bilgunea Usurbilen Korrikara begirako kultur hitzorduak prestatu nahiz euskarazko sorkuntza proiekturik partekatu nahi duten herri eragileei eta norbanakoei zuzendua dago. Hortik aurrera, zer egin, noiz, nola... erabaki hauek guztiak Korrika Batzordeak hartzen ditu. Etumeta AEK euskaltegitik berri eman digutenez, jada norbanako baten ekarpena jaso dute.

Lanean segitzeko gogotsu, ikasturtea erdibidera heltzear duten honetan

2023-24 ikasturtearen erdibidera heltzear dira Etumeta AEK euskaltegian, ebaluazio garaira. Egunotan aditzera eman digutenez, sei talde osatu dituzte maila ezberdinetan. Haiez gain, beste bi kolektiborekin ere lanean dihardute astero; batetik, herrira etorri berriekin eta baita jubilatuekin ere. Ikasleak gogotsu daude. Hala, Usurbil Museo Irekia ekimeneko ibilaldi gidatua parte hartu zuten udazkenean, urtea San Tomas eguneko ospakizunen bueltan borobildu zuten. Ikasleak elkarren artean eza-gutzeko dinamikarik ere egin dute. Aurrera begira, kolektibo gehiagotara heltzeko prestasuna izaten segitzen dute euskaltegikoek.

Informazio gehiagorako:
607 609 379
E-posta: usurbil@aek.eus



Abenduaren 14an hasitakoak jarraipena izango du ostegun honetan.

Trantsizio ekosozialari lotutako bigarren ko-sorkuntza saioa

Ostegun honetan batuko dira, hilak 18, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean

Etorkizuneko herria eraikitzeko "Usurbil Bizi. Lau misio, herri bat" proiektuaren baitan aurrera begirako lau erronka aurkeztu zituzten Udalak eta eragileek iragan urrian Zumarten; zaintza, 650 Usurbil Bizi, "Udala, gertu" eta azkena, trantsizio ekosoziala. Azken hau, norbanako nahiz eragileekin batera diseinatzeko deia egin zuten. Abenduaren 14an, ko-sorkuntza prozesua abiarazi zuten

lehenengo saioarekin. "Administrazioek bakarrik ezin die erantzun erronka kolosal honi", zioten aurkezpen ekitaldi hartan. Misio honen balizko elementuak identifikatzen aritu ziren Potxoenean. "Elkarlanean misio horretara hurbiltzeko edukiak lantzea" dute xede. Bigarren saioa, ostegunerako, urtarrilaren 18rako iragarri du Usurbilgo Udalak, arratsaldeko 18:00etan Potxoenean.

Garbigune mugikorrek ibilbide berria jarraituko du 2024. urtean

Aurrerantzean ere ostegunero egingo da toki aldaketa eta finkatuak zeuden toki horietan guztietan astebeteko egonaldia egingo du. Aldiz, ibilbide horretako geltokien hurrenkera aldatu du Udalak. Urte berriko garbigune mugikorraren ibilbidearen noranzkoa, honako hauxe izango da aurrerantzean: Aginaga, Zubieta, Txokoalde, Santuenea, Kalezar eta Kaxkoa. Azken astebetean Zubietan izan da; urtarrilaren 18tik 25era



Aste honetan Txokoalden izango da.

Txokoaldera lekuz aldatuko dute eta gero handik Santuenean hilaren 25ean.

Egutegi osoa usurbil.eus atarian eskura dezakezue.

Iazko deskontu berak Lurraldebusen eta Euskotrenen

2023. urtean egin bezala, %50eko deskontua aplikatzen segiko zaie 2024an ere Lurraldebusere erabiltzaileei. Hala berretsi du Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasuneko, Turismoko eta Lurralde Antolaketako Departamentuak. Bertatik aditzera eman dutenez, "udazkenean konpromisoa hartu zuen 2024 osoan Lurraldebusen tarifen % 20ko beharpena mantentzeko, eta orain Espainiako Gobernuak %50era arte osatuko du".

Gauzak horrela, Diputazioetik bermatu dutenez, "gipuzkoarrek 2023ko baldintza beretan erabili ahal izango dute Lurraldebusen zerbitzua eta hobariak Mugi sistemaren berezko abantaila gehituko zaizkie; sistema horrek erabileragatik deskontu progresiboak, garraio-operadoreen arteko doako transbordoak edo hobariak eskaintzen ditu, doakotasuneraino iritsiz, kolektibo kalteberenei eta baliabide gutxien dituztenei".

Autobus zerbitzuetan soilik ez, Euskotrenen ere bere garraio zerbitzuen %50eko beharpenari eutsiko diola jakinarazi du. "Eusko Jaurlaritzak, garraio-arloko gainerako era-



%50eko deskontuari eutsiko zaio.

kunde eskudunekin koordinatuta, familien egoera ekonomikoa arintzeko lehentasuneko helburua mantendu du, aldi berean, garraio publikoaren bidez mugikortasun jasangarria sustatu eta ibilgailu pribatuen erabilera ekidinez, CO2 emisioak murrizte alderara".

Debekua

Gogoan izan, bestalde, aste hasieratik debekatua dagoela patinete eta monoziklo elektrikoak trenean sartzea. "Segurtasun arrazoiengatik" hartu du erabaki hau Euskotrenek. "Neurriak ez die eragingo mugikortasun urriko pertsonen ibilgailuei, ez eta bizikleta elektrikoari ere, horiek erabiltzen jarraitu ahal izango baitute".

Langabetu kopuruan murrizketa bigarren hilabetez

Azaroan baino bost langabetu gutxiago zenbatu zituen abenduan Estatuko Enplegu Zerbitzuak Usurbilen. Hala, 195etik 190era murriztu zen bi hilabeteotan, udalerrri honetako langabetu kopurua. Martxoaz geroztik (191 langabetu zituen udalerrri honek hilabete hartan) ez da hain datu baxua erregistratu.

Gizonezkoen artean murriztu zen langabetu kopurua (azaroan 80, abenduan 74). Ema-

kumezkoen artean langabetu bat gehiago zenbatu zuen Estatuko Enplegu Zerbitzuak (azaroan 115, abenduan 116). Halere, aldea, bistan denez, nabaria da; gizonezkoak baino (74), emakumezko langabetu gehiago du udalerrri honek; 116. Aldiz, emakumezkoak baino (129) gizonezko gehiago (143) kontratatu zituzten abenduan. Hilabete horretan erregistratu ziren kontratu gehienak (272tik 225) aldi baterako hitzartu ziren.



Barne araudia behin betiko onartutzat jo du Udalak. Hala jakinarazi zuen hilaren 4ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Txirikordako bizikidetza araudia, behin betiko onartua

Beste urrats bat negu honetan bertan ireki eta bizilagunak sartzearekin batera abiarazi nahi duten Txirikorda izeneko egitasmoan.

Onarturiko araudiak dioen moduan, "xede Ugartondo Txirikorda eraikinean belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren baremazio eta esleipen prozedura eta funtzionamenduaren oinarritzko elementuak zehaztea da". Gogoan izan, 18-30 urte arteko gazteak eta 65 urtetik gorako herrikideak elkarbizitzaren jarriko ditu egitasmo aitzindari honek. "Bizitegi baliabideak etxebizitza sozializat hartzen dira adierazitako ondorioetarako. Lagatzeko era errentamendua izango da", dio araudiak.

Formazioa

Esleituak daude etxebizitzak, zozketa ere egin zuten iragan maiatzean. Zozketa bidez esleitu ziren gazteei zuzenduriko etxebizitzak, gizarte zerbitzuen baremazio bidez 65 urtetik gorakoak. Etxebizitzak esleitu, behin betiko onartutako araudiak bizilekua esleitu zaiznei zehaztuak erabakirik ezartzen

dizkie; batetik, hilabeteotako formazioa egitea. Horrekin batera, "Udalak esleipendun bakoitzari dagokion kanona, eta egin beharreko lan komunitarioaren errentamendu kontratuen zehaztuko ditu", dio araudiak.

Asanbladaren eratzia

Eguneroko bizikidetza eta Txirikordako barne funtzionamendua arautuko duena, Txirikorda Komunitateko Asanblada izango da. "Bizilagun guztiek osatuko dute, komunitatearen antolaketaren oinarria izango da, eta egin beharreko komunitate-jarduerak kolektiboei buruz erabakiko du, bai barrukoei buruz, bai kanpokoei buruz". Barne araudi bat ere diseinatuko dute. Bertan "ezarriko dira egoiliarrek komunitatearekin dituzten eskubideak eta betebeharrak, bizikidetza-arauak eta Txirikorda eraikinaren espazioen oinarritzko funtzionamendua".

Aurreikusten duenez, gainera, "Udalak bidelagun bat ja-

riko du komunitatearen osaketan laguntzeko" eta, gerora, "Udalak beharrezkoa dela ikusten duen aldiro, beti ere bizilagunek autoeratzeko duten eskubide eta betebeharrari kalterik egin gabe. Bidelagunak talde dinamikak sustatuko ditu biztanleak bizitza komunitarioan ahalduz bidean". Halere, Udalaren "esku-hartzea ahalik eta txikiena izango da eta komunitatea osatu eta garatzeko egin beharretan laguntza bideratuko da, komunitatearekin berarekin koordinatuta".

Denboraren bankua

Komunitateak Txirikorda egitasmoan balioak barneratuko

18-30 URTE ARTEKO GAZTEAK ETA 65 URTETIK GORAKOAK BIZIKO DIRA BERTAN

ditu; "besteak beste, zaintza, elkartasuna, justizia soziala, errespetua, autogestioa eta komunitatea". Horrekin batera, zehaztuak izango ditu. "Lan komunitarioak barne eta kanpo-mailan eskaini eta jasoko dituzte denboraren bankuaren bitartez. Eskaini beharreko denbora, eremu horien kudeaketarekin eta itzulketa sozialarekin loturik egongo dira: jarduerak, asanbladak, elkar-zaintza, formakuntzak, ekitaldiak, herrigintza eta abar".

Bizilagun bakoitzak gutxienez hilabetean zortzi ordu eskaini beharko dizkie lan komunitarioei. Komunitatea izango da hortik aurrera, orduak autoerregulatuko dituen. Hiru ordu komunitario mota finkatuak ditu araudiak: Txirikordako barne-funtzionamenduari lotutakoak, komunitateko kideen artean elkar laguntzara bideraturikoak eta Usurbilgo herri komunitateari eskainitakoak.

Erabilera anitzeko espazioa

Txirikordak erabilera anitzeko espazio bat izango du. Bertan bizi direnen, Udalak edota herri eragileek baliatu ahaliko dute. "Espazio publiko honen erabilera Txirikordako Komunitateak Udalarekin adostuko du, Txirikordako Komunitateko ordezkariaren bitartez. Txirikorda Komunitatearen esku egongo da espazio honen kudeaketa eta Barne Araudian egongo dira txertatuta espazioa erabiltzeko irizpideak", dio belaunaldiarteko etxebizitza komunitarioaren bizikidetza-ri lotutako araudiak.

Aipaturiko xehetasun guztiok eta behin betiko onarturiko erregelamenduan, "Txirikordako funtzionamenduko Barne Araudian eta etxebizitza sozialei buruzko araudi nagusian zehaztutako baldintzak ez betetzeak, Udala eta errentariaren arteko kontratua bertan behera uztea ekar dezake". Hiru mailatako arau haustea zehaztu ditu araudiak; "arinak, larriak edo oso larriak".



Asteartetan eta ostegunetan elkartzen dira Oiardo kiroldegian.

Kickboxing-a probatzeko deia

Astean bitan elkartzen dira Oiardo kiroldegiko tatamian kickboxing-a praktikatzeko, astearte eta ostegunetan, 19:00-20:00 artean. Egun 10-12 bat lagun biltzen dira, taldetik

adierazi digutenez, gehienak hasiberriak dira.

Arte martzial mota bat da kickboxing jarduera. Entrenamendu saioetan, ohiko beroketa ariketen ondotik, esate-

rako, binaka entrenatzaileak proposatutako ostikaden konbinazio ezberdinak egiten dituzte. Batek hankekin eragiten dio aurrean duen kideak babesteko jarritako eskuei. Hortik hurrengo urratsa, nahi duenak borrokaldi baterako prestatzea litzateke; "sparring" delakoa, aurreko ariketa horietan landutakoa praktikan jartzea ahalbidetuko lukeen borroka simulatua lantzea.

Animatzen den orok, entrenamendu saioetara agertu eta entrenatzailearekin hitz egin baino ez du. Herrikideen arteko giro polita dutela adierazi digute, arautua dagoen dinamika hau guztia espazio seguru batean egiten dute. Baliagarritzat jotzen dute gorputza landu, energia askatu, nor bere burua defendatzen ikasi edota geure egunerokoan bizi ditzakegun tentsio egoerak kudeatzen ikasteko.

Eskubaloia

Urtarrilak 20, larunbata

- 10:00 Infantil mutilak: -Usurbil KE A
- Egia Eskubaloia A
- 11:15 Infantil neskek: -Usurbil KE B
- Ordizia
- 17:00 Senior mutilak: -Saizar Usurbil KE
- Urduliz Eskubaloia

Pilota

Urtarrilak 19, ostirala, 17:45

- Kadeteak 3. Maila: Pagazpe (Indakoetxea-Jauregi)
- Ilunpe
- Kadeteak 1. Maila: Pagazpe - Bergara
- Kadeteak 1. Maila: Pagazpe 2 - Behar Zana 1

SUDOKUA

T	I	A	K	R	S
K	S	R	T	I	A
I	A	K	S	T	R
S	R	T	A	K	I
A	K	I	R	S	T
R	T	S	I	A	K

Hau kiratsa!!! Arrautza ustelen bat hautsi da? Paper fabrikari lanean ari dira? Arranpola, zer gertatu da hemen? Bete itzazu hutsuneak KIRATS hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (K, I, R, A, T eta S). Kontuan har hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.

Zure ustez kiratsaren iturrira izan litekeen hori marraz ezazu laukian.

Gaiztometroa

→ → → ↓ ↓ ↓ → → → ↓ ↓ ↓

(H) I L B E L T Z A

B	L	A	C	K	I	S	B	E	L	T	Z
N	O	I	R	E	G	I	X	K	U	N	I
↓ ↓ ↓											
C	H	K	B	O	R	T	Z	I	R		
↓ ↓ ↓											
!	<	U	N)	E	S	K	E	L	E	N
M	U	R	M	I	L	K	A	W	P	S	=
K	R	I	M	I	B	A	L	I	S	T	I
U	R	G	A	I	N	E	L	T	U	L	A
Z	U	Z	T	A	R	B	I	Z	B	A	T
X	/	O	!	F	P	E	A	D	U	E	

Hiltzaierik zikoitzanak eta detektibarik petralenak Baztaren biltzen dira urtarriean. Ba al dakizu zergatik? Nobela beltzaren astea antolatzen dutelako han, hain zuen. Eta ba al dakizu zer izen duen jaialdi horrek? Ez? Jarraitu geizien norabideari, eta bidean batzen dituzun hizkiak idatzi lauki zurietan, hurrenez hurren. Hortxe aurkituko duzu erantzuna.

Handienetik txikienera

Ordena itzazu handienetik txikienera. Handienari 1 zenbakia eman eta txikienerari 9.

Lagundu gure detektibe pareari gaizkilearen arrastoa jarraitzen. Labirinto honetan giza urratsak dituzten laukietatik joan behar duzu, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina ezin duzu diagonalen mugitu.

Osatu

Hara, ba azkenean ez zegoen gaizkilerik, gure maskota Zangotxoren txantxa bat besterik ez zen, galtzerdiak eta oinetakoak jantzita ibili baita labirintoan. Marraztu iezazkiozu.

Zeeep?!?

Eman irudiño bakoitzari bere hizkia, eta esandakoa deskubrituko duzu. Erabili beheko alfabetoa.

ESAN BOST HITZ ITSUSI!

A	S	T	A	P	I	S	T	O	L	A
B	A	B	A	L	A	S	T	O	A	
A	R	T	A	B	U	R	U	A		
Z	O	K	O	R	M	A	Z	O	A	
↓ ↓ ↓										
E	T	A								
T	E	N	T	E	L	A				

Plazan Bazan 12/13 orrialdeetako soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat. 627184674

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Garajeko marra bat eskaintzen da errentan hartzeko, herriaren erdialdean. 636601644.

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA!KO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian txotx garaiaren larunbat eguerditan zerbitzaria behar da. 943 36 67 10

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaindu, eskolara eraman edo etxekolanak egiten lan egingo nuke. Goizez edo arratsaldez aritzeko prest. 616273785.

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, asteleheneetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa. 617792736

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Neska euskalduna umeak ikastolara eramateko edo zaintzeko prest legoke. 635 007 449 (Leire).

Astean zehar zein asteburuetan haurrak zaintzeko prest dagoen neska usurbildarra naiz. Esperientzia daukat. 676584506.

Haurrak zaintzeko lan bila nabil. Esperientzia daukat. 695 18 41 79

Soziosanitario titulua dut. Jende nagusia zaintzeko prest, orduka, edo gau eta egun. 632 360 758.

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. 611282203.

BESTELAKOAK

Belarritako bat aurkitu genuen kaleari, abenduaren 8aren inguruan. Galdu baduzu deitu: 607 168 352.

Eskuz eta modu artisauan egindako egurrezko ontzitegia edo armairu dotorea daukat salgai. Estilo rustikoa duena, baserri edo negozio baterako aproposa. Ikusteak merezi du eta prezioa negoziagarria da. 622353183.

Futbol partidak

Haranen

Urtarrilak 19, ostirala

- 16:15 Infantil neskak:
- Usurbil FT
- Antigua Luberri

Urtarrilak 20, larunbata

Futbol Eskola.

Urtarrilak 21, igandea

- 11:45 Jubenil preferenteak:
- Usurbil FT
- Oiartzun KE B
- 14:00-18:00 Reala: eskola ibiltaria.

Haranetik kanpo

Urtarrilak 18, osteguna

- 20:15 Erregional preferenteak, Donostiako Berion:
- Santo Tomas Lizeoa KE
- Usurbil FT

Urtarrilak 21, igandea

- 10:00 Infantil mutilak, Astigarragan: Astigarraga Mundarro FKE-Usurbil FT B
- 15:30 Jubenilak, Donostiako La Sallen: Donostiako Igeltegi CF-Usurbil FT B
- 19:30 Preferente neskek, Irungo San Jose Obreron: Dunboa Eguzki CD B-Usurbil FT

HILDAKOAK



Santos Irureta Alzugaray
Urtarrilaren 12an hil zen, 73 urterekin.

ZORION AGURRAK



Zorionak Ibai!
11 urte bete zenituen urtarrilaren 8an. Aiton-amonen, izeba-osaben, arreba Iratiren eta lehengusu Xuneren partetik muxu handi bat!!!



Zorionak Josu eta aitona!
Muxu handi bat etxekoan partez.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Osteguna, 18	GANDARIAS-URIBE: Iñigo Loloia 9, Lasarte / 943 01 95 21
Ostirala, 19	ORUE Jaizkibel plaza 2, Lasarte / 943 36 26 52
Larunbata, 20	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Igandea, 21	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Astelehena, 22	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Asteartea, 23	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67
Asteazkena, 24	GIL MARTIN Kale Nagusia 24, Lasarte / 943 36 07 08
Osteguna, 25	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Ostirala, 26	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte / 943 36 17 74
Larunbata, 27	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 28	URBISTONDO San Franzisko 1, Lasarte / 943 36 65 67

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

SABORIDO RODRIGUEZ, MIREN: Mañe i Flaquer plaza, 6 Hernani 943 57 64 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegtoa

Etor zaitetz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTEGUNA 18

USURBIL Trantsizio
ekosozialari buruzko saioa

Trantsizio ekosozialaren misioa elkarlanean definitzeko bigarren ko-sorkuntza saioa.

18:00etan Potxoenean.

IGANDEA 21

USURBIL Odol Emaileen Eguna

Odol Emaileen Egunean bazkaria antolatu du herriko odol-emaileen elkarteak igande honetarako.

14:00etan Antxeta jatetxean.

USURBIL "Soneto bat
irakurtzeko 20 modu"

Emanaldi artistikoa Harkaitz Cano, Beñat Barandiaran eta Maite Larbururen eskutik.


18:00etan Sutegin.

ASTEAZKENA 24

USURBIL Sortalde, Usurbilgo
Energia Berriztagarrien
Komunitatearen aurkezpena

Sortalde, irabazi asmorik gabeko kooperatiba eratu da Usurbilen. "Zatoz, eta ezagutu 2024ari begira ditugun asmoak. Bertan azalduko ditugu buruan ditugun lehen proiektuak eta bazkide izateko eman beharreko urratsak", Sortaldetik aditzera eman dutenez.

18:30ean Sutegin.



Harkaitz Canoren poesia-lan batean oinarrituta dago ikuskizuna.

Igandean Sutegin, 'Soneto bat irakurtzeko 20 modu'

Harkaitz Cano, Beñat Barandiaran eta Maite Larbururen ikuskizuna arratsaldeko 18:00etan hasiko da. Emanaldirako sarrera 5 eurotan eskuratu ahal da alde zurretik, usurbilkultura.eus plataforman.

Euskarazko literatura sarean guztion esku jartzen diharduen urtez proiektuaren izena daraman jaialdia antolatu zuen Udalarekin eta NOAUA! K.E.-rekin lankidetzan Usurbilen. Pettiren kontzertua, zaintza eta energia hizpide izan zituen literatura solasaldi bana, Udarregikoen "Ipui-naldia" edota poesia irakurraldia tartekatuz zituzten urriaren 28an Sutegin eta Zumarten. Hitzorduetako bat ordea, bertan behera utzi behar izan

zuten eta huraxe da hain zuzen, igande honetan, urtarrilaren 21ean, Sutegiko auditoriora dakartena. Arratsaldeko 18:00etan hasita, 'Soneto bat irakurtzeko 20 modu', Harkaitz Cano, Beñat Barandiaran eta Maite Larbururekin. "Hama-laukoa edo sonetoa XIII. mendean sortu zen eta hamaika jarraitzaile izan ditu geroztik. Soneto hitzaren jatorrian probentzaleko hitz bat dago: sonet (kantu ttipia). Honenbestez, Harkaitz Canoren 'Poza-ren erdia' soneto-bilduma oinarri hartuta, hitz, hots, soinu, doinu eta kantuen arteko zirrikituetan barna jolasean arituko dira bi musikariak eta idazlea, molde klasikoe-tatik musika urbanora arteko txangoa eginez".

Sareren
mobilizazioa

Bilboko manifestazioaren ondotik, datorren ostiralean, hilaren 26an antolatu du Sarek 2024ko urteko azken ostiraletako lehen elkarretaratzea. Iluntzeko 20:00etan, Mikel Laboa plazan.

Kantu-jira

Ikasturte berria abiarazi duen Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak urtarrilaren 27an egingo du 2024ko lehenengo kantu-jira. 12:00etan abiatuko da Mikel Laboa plazatik. Ez ahaztu kantu-liburuxka eramatea. Gogoan izan, ikastororako astelehenero biltzen da Kantu Taldea Agerialdeko musika gelan.

12. Irisasi
BTT Hotzak
Akabatzen

Urtarrilaren 28an igandea, 09:00-12:00 artean. Izen-ematea urtarrilaren 24ra arte, kronoak.com atarian.

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
PLATER KONBINATUAK
BOKATAK · PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Parti
bazkariak EGUNERO
afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

ITE-ak

649 43 54 75
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

·Fatxadak estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra

Tel: 606 37 21 05 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

·gremioen koordinaketa
·berritze lanak
·sukaldeak
·komunak

943 530 337
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GAR
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiiturgintza.com - www.inakiiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarraiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO MANPARAK
· KONFINDATZAZKO GREMIOAK · KOMUNEKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • © 943 36 80 04



ANORGA TXIKI S.L.
KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak
·beira bikoitza ·segurtasun beirak
·dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



maiz
hornigaiak

·TRESNERIA ETA ERREMINTAK
·EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

URDAIRA

Sagardotegia

943 37 26 91

Aginaga

Astelehenak itxita

  @urdairasagardotegia | www.urdairasagardotegia.com



OTSUA-ENEA SAGARDOTEGIA

943 55 68 94

Osinaga bailara, HERNANI



LARRE-GAIN DOLARE SAGARDOTEGIA

Urtarrilaren 19tik maiatzaren 5era
TXOTX GARAIA

Hernanitik autobus zerbitzu propioa larunbatetan
Igande gaua eta astelehenetan ITXITA

Larre-Gain Baserria **Ereñotzu - Hernani**

Tel: 943 55 58 46 Mugik: 616 287 867

www.iruinsagardotegia.com



ELUTXETA

SAGARDOTEGIA • ERRETEGIA

Urte guztian irekita astelehen eta astearte izan ezik.



Oztaran bailara • URNIETA (Gipuzkoa) • ☎ 943 55 69 81



SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN
ETXEAN EGINDAKO
SAGARDOA
astelehenetan itxita

Tfno-fax: 943 36 67 10
Aginaga auzoa, 20170 USURBIL
info@aginagasagardotegia.com
www.aginagasagardotegia.com



Txotxetik sagardoa
jarraitu usadioa!

ORDUTEGIA:

Asteazken eta ostegunak: 20:00-01:00

Ostirala: 13:30-18:00 / 20:00-01:00

Larunbata: 13:00-18:00 / 20:30-01:00

Igandea: 13:30-18:00

%100 bertako saarra

Tel: 943 365 031

Santuenea

